

GAIA: [Arte Hezkuntza](#)

ZIKLOA: [Lehen zikloa](#)

ARTEAREN ETA EMOZIOEN BIDEZKO BIDAIA	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Artea emozioak erakusteko leihoa da. Ikaskuntza-egoera honetan hezkuntza-proposamen bat eginen dugu artea, pentsamendu kritikoa eta emozioak uztartzeko. Horrez gain, Laguntza programarekin paraleloan jarduteko aukera ona da. Ikaskuntza-egoeraren hasieran hainbat garaitako egileen margolanei buruzko behaketa eta banakako hausnarketa eginen dugu. Gero, margolanek ikasleei sortu dizkieten emozioak eta ikusitakoaren gaineko adierazpenak sakonago landuko ditugu. Hasierako hausnarketa egin ondoren, ikasleek, banaka zein talde kooperatiboetan antolatuta, beste proposamen batzuk landuko dituzte, hala nola margolan horien kopiak egitea, hainbat margolaritza-teknika erabilita. Behin esperientazio hori eginda, proposamen irekia eginen da, nork bere emozioak adierazteko aukera izan dezan, ikasitako lengoaien eta tekniken bidez. Ikaskuntza-egoera horren amaierako produktua margolaritza-erakusketa izanen da. Artistek, banaka eta taldeka, lan askeak erakusteko aukera izanen dute. Horrez gain, teknikak eta prozesuak eta sentitu dituzten emozioak azaltzen ahalko dituzte.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK5, ELK1, STEM3, KPSII1, KPSII4, KPSII5, HK3, EK1, KKAK1, KKAK2, KKAK3, KKAK4 BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 3, 4 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 1.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 4.3. OINARRIZKO JAKINTZAK: A.1, A.2, A.3, A.4, A.6 B.1, B.3 C.1, C.2, C.3, C.4



GAIA: [Arte Hezkuntza](#)

ZIKLOA: [Bigarren zikloa](#)

Behin batean...	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Ikaskuntza-egoera honetan arte eszenikoak eta haur-literatura uztartuko ditugu. Gainera, Nafarroako Antzerki Eskolak «Joko dramatizatuak» izeneko programaren bidez egin dituen proposamenak ere erabiltzen ahalko ditugu. Proposamenaren amaierako helburua haurrentzako ipuin bat ikasgelatik kanpoko pertsoneri kontatzea da. Hasieran, ipuin tradizional batzuk irakurriko ditugu, hainbat kultura edo tradizio kontuan hartuta. Haur-literaturara horrela hurbildu eta gero, ikasleek aukeratuko dute zer ipuin kontatu nahi duten amaieran. Lehenengo fasean, gorputz adierazpena eta mugimendua landuko ditugu, eta musika ere erabiliko dugu, gorputz adierazpena sustatzeko. Geroago, elkarrizketak eta antzezlanak landuko ditugu. Ikasleak eszenografia eta atrezzo egiteaz arduratuko dira. Irakasleek hezkidetzak sustatuko dute beti, ipuinak zein jantzigintza lantzen direnean.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK4, ELK1, KPSII3, KPSII4, EK1, EK2, KKAK1, KKAK2, KKAK3, KKAK4, STEM 3,
	BERARIAZKO GAITASUNAK: : 3, 4
	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: : 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 4.3
	OINARRIZKO JAKINTZAK: B.1, B.3 D.8-D.12



GAIA: [Arte Hezkuntza](#)

ZIKLOA: [Hirugarren zikloa](#)

Munduko bira

Ikaskuntza-egoera honetan proposatuko dugu hainbat kultura ezagutzea musikaren bidez. Abiapuntua gelako dibertsitate kulturala izanen da.

Proposamenaren bitartez, hainbat herrialdetako folklore musikala (musika-tresnak, musika, dantza...) ezagutu eta ikertuko dugu. Herrialdeak aurrez esleituko dizkiegu ikasleei. Arestian esan bezala, gelako kulturen aberastasuna baliatuko dugu, lana banatzeko irizpidetzat hartuta.

Irakasleen lana funtsezkoa izanen da motibazioa pizteko, iturrien berri emateko eta prozesua gidatzeko. Proposamenean entzute aktiboa, dantzak, abestiak eta musika uztartuko ditugu, gelako bizipenak eta esperientziak beste dokumentazio-iturri bat izan daitezen. Era berean, ikerkuntza-prozesua ikasgelako hormatik kanpo atera daiteke, eta familiek eta inguruneak ere parte hartzen ahalko dute prozesuan.

Honela erakutsiko dute ikerketen emaitza: guztien artean mapamundi kolaboratiboa eginen dute, eta bertan jantziak eta musika-tresnak jasoko dituzte. Mapa digitala eginez gero, ikus-entzunezko materialak ere erabiliko dituzte. Gainera, ikasle bakoitzak pasaporte bat eginen du, eta marrazkien zein hitzen bidez irudikatuko du herrialde bakoitzari buruz ikasitakoa.

CURRICULUMENKO ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

[ELK3](#), [KD1](#), [HK1](#), [KKAK1](#), [KKAK2](#), [KKAK3](#), [KKAK4](#), [ELK3](#), [HKK3](#), [HK3](#), [STEM 3](#)

BERARIAZKO GAITASUNAK:

[1](#), [2](#), [3](#), [4](#)

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

[1.1](#), [1.2](#), [2.1](#), [2.2](#), [3.1](#), [4.2](#), [4.3](#)

OINARRIZKO JAKINTZAK:

[A.1-A.6](#)

[B.4](#)

[D.2](#), [D.7](#)

GAIA: [Gorputz Hezkuntza](#).

ZIKLOA: [Lehen zikloa](#)

ZIRKUAN JARDUTEA	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Zirkua eszenatoki ezin hobea da ilusioa, fantasia eta alaitasuna adierazteko. Gune motibatzailea da, eta leku egiten dio sorkuntzari. Zirkuan hainbat ikaskuntza batera daitezke: gorputz hezkuntza, adierazpena, gaitasunak zein trebetasunak, ezagutzak, jokabideak, balioak... Eta hori guztia ikuspegi globaletik egin dezakegu. Izatez, zirkua hasieratik izan da kultura-aberastasunaren iturri. Ohiko entretenimendua izan da, eta bilakaera handia izan du. Hori dela eta, abiapuntu egokia izan daiteke gaur egungo aisialdiaz disfrutatzeke moduak aztertzeke. Lan handia egin behar da zirku-emanaldi bat antolatzeke, eta ikasleekin batera eginen dugu; horrela, hasierako eta amaierako egitura, saioak eta agurra diseinatuko ditugu elkarrekin. Pertsonaiek ematen dituzten aukerei esker, prozesu didaktikoan hainbat zeregin baliatzen ahalko ditugu: malabaristak (pilotak), orekariak (objektuak erabiltzen dituztenak), akrobatikak, jauzilariak, piztien hezitzaileak, pailazoak (gorputz hezkuntza eta adierazpena) eta abar. Horrela, esanahia emanen zaie aukera pedagogikoei, eta horrek ikasleei lagunduko die berariazko gaitasun batzuk lortzen. Besteak beste, honako hauek: • mugimendu-gaitasuna: gorpuztasuna, adierazkortasuna eta motrizitatea; • estrategia kognitiboak, arazo errazak ebazteko. • aurkikuntza gidatuak, ikaskuntzari eta prozesu	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK5, STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK3, EK3, EKC1, EKC3, EKC4. BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 2, 3, 4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 1.4, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 3.3, 4.3. OINARRIZKO JAKINTZAK: A.1, A.2, A.3. B. C. C.1, C.2, C.4, C.5. D. E.

emantzipatzaileei esanahia emateko;

- lankidetzan aritzeko hasiera.

Zenbait saio edo antzezlan prestatu bitartean, ikasleak hasiko dira taldeko lana egiten eta elkarrekin ikasteko garrantzia ulertzen. Horrela, honako hauek lantzeko oinarria ezarriko da: trebetasun sozialak, emozioen kudeaketa (entzutea, onartzea, erabakitzea...), elkarri laguntzeko garrantzia, aukera berdinak, banakako eta taldeko erantzukizuna, parte-hartze inklusiboa... Proposamenak zeregin txikiak (eszenatokia, giroa, musika...) izanen dira, eta amaieran antzezlan bat prestatuko dute. Prozesuan aukera izanen dugu prestatu duguna besteei erakusteko, eta, aldi berean, ikus-entzuleak ere izanen gara. Modu egokia da, beraz, autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa praktikatzeko. Batetik, ikusi dugunaren aldeko informazioa emanen dugu, baina, bestetik, iritzi eraikitzailea ere partekatuko dugu, jarduerak hobetzen laguntzeko. Has dadila ikuskizuna!



GAIA: [Gorputz Hezkuntza](#).

ZIKLOA: [Bigarren zikloa](#)

FUTBOLEAN BEZALA!	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Futbola kirol mediatikoa da, eta guztiok imajina ditzakegun gai sozialek eta ekonomikoek jokoaren berezko ezaugarriak baldintzatzen dituzte. Gure asmoa inbasio-joko horren muina berreskuratzea da, hainbat materialen bidez. Jokoaren egiturari eutsiko diogu, eta ikasteko aukerak proposatuko ditugu, lankidetzaz aurkaritza binomioan oinarritutako mugimendu-egoeren bidez. Planteamendu didaktikoaren ardatz nagusiak pilota handia (bujbol), pilota arina eta bote-pilota (colpball) izanen dira, baita disko hegalaria ere (ultimate). Dena den, material berriagoko beste joko batzuk ere badaude, eta erraz molda daitezke guneen, materialaren, jokalarikopuruaren eta gainerako eskakizunen arabera. Ikaskuntza-prozesuan manipulazio-trebetasunak eta -abileziak bereziki landuko ditugu. Izan ere, ikasleek gorputz-atal guztiak erabili beharko dituzte, besteak beste, oina erabili beharko dute, pilota jotzeko; pilotari heltzeko mugak ere menderatu beharko dituzte; eta espazioan orientatzeko eta muga mugikorra ulertzeko mugimendu-trebetasunak ere garatu beharko dituzte. Bestalde, defentsa eta eraso egiteko estrategiak ere egokiak dira	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK5, STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3. BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 2, 3, 4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.3, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 3.3, 4.2. OINARRIZKO JAKINTZAK: A: A.1, A.2, A.3, B. C.: C.1, C.2, C.4. D. E.

kirolean hasteko joko horietan erabakiak hartzeko. Sortuko diren aukera eta aldagai anitzek prozesua aberastuko dute, honako alderdi hauek guztiak kontuan hartuta: espazioa, denbora, arauak eta alderdi teknikoak zein taktikoak.

Joko-arauak onartu beharra eta betetze-maila baliagarriak izanen dira, ikasleen jokabidea emozioen ikuspegitik lantzeko: gatazka-egoerak etengabeak izanen direlako, eta jokoan sortuko diren arazoak konpontzen lagundu beharko diegulako.

Horren harira, ikasgelako taldearen bizikidetza ere landuko dugu. Izan ere, askotan jokabide diskriminatzaileak ager daitezke, hainbat kontu direla eta: mugitzeko gaitasun-maila, mutilen eta nesken arteko norgehiagoka, gorputzari buruzko estereotipoak eta abar.

Gainera, ikasleek adin egokia dute kirolei buruzko iritzi kritikoa osatzeko, jokoa hainbat ikuspuntutatik aztertzeko eta hainbat irizpide kontuan hartzeko, hala nola jokalaria, lagunak edota lehiakideak, arbitrajea, ikus-entzuleak edo jokoaren analistak. Ziur asko, aukera egonen da txapelketa bat antolatzeko, funtzio horiek guztiak bertan garatzeko eta ikasten jarraitzeko.

Txapelketa goizeko atsedenaldira egiten ahalko dute, eta ikasgelan landutakoa aisialdira eta dibertitzeko momentuetara ere eramanen dute.

GAIA: [Gorputz Hezkuntza](#).

ZIKLOA: [Hirugarren zikloa](#)

ENTRENAMENDU-PLANA (E)

Proposamenaren bidez, ikasleei azaldu nahi diegu zer den entrenamendu-saio bat, zertarako egiten den eta nola prestatzen den entrenamendu-plan bat. Beharrezkoa izanen da, beraz, haietako bakoitzak helburuak zehaztea eta prozesuaz arduratzea. Proposamena, berez, ekintza-proiektua da, baina ikasleek eraikiko dute euren ikaskuntza-prozesua; hortaz, oso garrantzitsua izanen da saio bakoitzeko hausnarketak eta bizipenak partekatzea. Bestela esanda, autoebaluazio-prozesua etengabea izanen da.

Planteamendu didaktikoaren oinarria banakako entrenamenduaren programazioa izanen da, eta abiapuntua diagnostiko-ebaluazioa izanen da (hasierako azterketa). Horren bidez, ikasle bakoitzaren ezaugarrien arabera moldatzen ahalko dugu plana, aurrerapen-maila ziurtatzeko.

Honako egitura hau proposatzen dugu: berotze-arietak, lasterketaren erritmoa ikastea eta barneratzea eta indarrak berreskuratzeari buruzko zatia. Horrela, ikasleek honako gaitasun hauek garatuko dituzte:

- Erregistroen gaineko kontrola egitea: distantzia, amaierako denbora, erritmoa, pultsazioak... Saio bakoitza amaitu eta gero, datu horiek aztertzen ahalko dituzte, eta beren gorputza hobeki ulertuko dute.
- Erritmo uniforme eta atsegina mantentzea, esfortzua eta

CURRICULUMENKO ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

[HKK1](#), [HKK5](#), [STEM1](#), [KPSII1](#), [KPSII3](#), [KPSII4](#), [KPSII5](#), [HK2](#), [HK3](#), [EK3](#).

BERARIAZKO GAITASUNAK:

[1](#), [2](#), [3](#).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

[1.3.](#), [1.4.](#), [2.1.](#), [2.2.](#), [2.](#), [3.1.](#), [3.3.](#), [3.2.](#), [3.3.](#), [4.2](#).

OINARRIZKO JAKINTZAK:

[A](#): [A.1](#), [A.2](#), [A.3](#).

[B](#).

[C](#): [C.1](#), [C.2](#), [C.4](#).

[D](#).

[E](#).

indarra orekatuta.

- Lasterketaren kontrolari eusteko teknika bat erabiltzeaz gain, honako elementu hauek ere beharrezkoak direla onartzea: kronometroa, jantzi eta oinetako egokiak, hidratazioa, indarrak berreskuratzeko denbora eta abar.
- Emaizak ulertzea eta onartzea, pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera.
- Lan autonomoa eta autoerregulazioa baloratzea, gainerako pertsonekin erritmo berean korrika egiteko bizi-pena izateaz gain.

Azkenik, ikasteko sekuentzia hori ezin hobea da banakako lana proposatzeko, eta ezagutzak eta bizi-penak bertan biltzeko. Lan hori galdera-sorta izan daiteke, galdera horietan honako hauek erakusteko:

- Gorputzaren egoera fisikoa eta entrenamendua hobeki ezagutzea eta ulertzea.
- Kirola egiteak gure gorputzean (organismoaren funtzionamendua, jantziak, elikadura, hidratazioa, kronometroa...) eta gure osasunean (onurak, arriskuak, ohitura osasungarriak eta ohitura kaltegarriak...) izaten dituen efektuak aztertzea.
- Gaur egungo gizartean jarduera fisikoak eta kirolak duten balorazioa eta iritzi kritikoa eraikitzea.

GAIA: Euskara (A eredua).

ZIKLOA: Lehen zikloa

JAIAN JAI ETA INAUTERIETAN ERE BAI

Hizkuntza bat ikasteko atxikimendua garrantzitsua dela aintzat hartuz, ikasleek hizkuntzarekiko lotura afektiboa, goxoa, pozgarria eta gustagarria egin dezaten, adin honetan hain gustuko duten Inauteriak gaia izpide hartuko dugu.

Arazo egoera honen helburua mozorro desfilea antolatzea izango da eta horretarako, inauterien nondik norakoak aztertu, mozorroa aukeratu, sortu eta desfilerako dantza prestatuko dugu.

Hasteko, inauterien inguruko ipuinak bilduko ditugu (digitalean edo paperean) eta pertsonaiak aztertuko ditugu: janzkera, kokapena, zer adierazten duten... Ondoren, gehien gustatzen zaien pertsonaiaren azterketa sakona egiteko, taldeka banatuko gara. Hiztegia landuko dugu, ezaugarri ezberdinei erreparatuz pertsonaia desberdinen informazioa horma-irudi batean jarriko dugu.

Ondoren, zein izango den gure mozorroa aukeratuko dugu eta hau sortzeko behar dugun materiala biltzen hasiko gara. Gelan gauzatu dezakegun mozorro zatiak diseinatu eta sortuko ditugu. Gelan egiterik ez dugun materialaren zerrenda osatuko dugu, etxean gurasoekin batera lortu ahal izateko.

Behin mozorroa prest dugula, desfilearen ibilbidea zehaztuko dugu eta gurasoei honen berri emango diegu. Gero, desfilean egiteko dantza bat asmatuko dugu.

Amaitzeko, desfilea gauzatuko dugu eta prestatutako dantza dantzatuko dugu.

CURRICULUMENKO ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

HKK1, HKK2, ELK1, ELK2, ELK3, STEAM3, KPSII3, KPSII4, HK2, HK3, EK1, EK3, KKAK1, KKAK4

BERARIAZKO GAITASUNAK:

1, 2, 3, 6

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

1.1, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 6.1, 6.2

OINARRIZKO JAKINTZAK:

A. KOMUNIKAZIOA

B. ELEANIZTASUNA

C. KULTURARTEKOTASUNA

GAIA: Euskara (A eredu).

ZIKLOA: Bigarren zikloa

HERRI KIROL EN TXAPELKETA

Herri-kirolak euskal-kultura ondarearen parte garrantzitsua izanik, ikasleek euskal hizkuntzarekin batera kirol hauek ezagutzea garrantzitsua da. Bestalde, ikasleek herri-kirolak praktikatzean gozatzeko aukera izan dezakete, eta honela lotura afektibo positiboak izan ditzakete ohitura ludiko honekin.

Arazo egoera honen helburua ikastetxean herri-kirolen inguruko txapelketa bat antolatzea izango da. Txapelketan gela ezberdinetako ikasleek parte-hartuko dute, eta txapelketa eguna aurretik, ikasle guztiek argi izango dute egin beharrekoa zer den.

Hasteko, herri-kirolen zerrenda egingo dugu, aurre-ezagutzak kanporatuz, eta informazio-iturri desberdinak erabiliz (Internet, liburuak...).

Ondoren, ikasleentzat eredu izango den azalpen testu baten azterketa egingo dugu; bertan agertzen diren ezaugarriak antzemanen eta egitura ulertuz.

Gero, ikasleek taldeka herri-kirol bat hautatuko dute, haren inguruko informazioa hainbat iturritan bilatuko dute, eta aurretik aztertutako eredu kontuan hartuz, azalpen testu bat idatziko dute. Azalpen testuan ongi azalduta jasoko da, kirola egiteko behar diren materialak, arauak...

Azalpen testu hauek txapelketan parte hartuko duten beste geletako ikasleei azalpenak emateko baliagarriak izango dira.

Bukatzeko, txapelketa antolatuko dute, lekua eta materialak behar diren pertsonen eskatuz.

CURRICULUMEN ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

HKK1, HKK2, ELK1, ELK2, ELK3, KD1, KPSII2, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, KKAK1

BERARIAZKO GAITASUNAK:

1, 2, 3, 4, 5, 6

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

1.2, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 5.3, 6.1, 6.2, 6.3

OINARRIZKO JAKINTZAK:

A. KOMUNIKAZIOA

B. ELEANIZTASUNA

C. KULTURARTEKOTASUNA

GAIA: Euskara (A eredu).

ZIKLOA: Hirugarren zikloa

ZUEKIN... EUSKAL IZAKI MITOLOGIKOAK

Euskara eta euskal-kultura hertsiki lotutako bi alderdi direla aintzat hartuz eta euskal mitologia gure kulturaren ondare izanik, euskal-izaki mitologikoak hizpide hartuko ditugu antzezlan bat prestatzeko. Horrela, interpretazioa eta irudimena estimulatuz, ahozko eta gorputza bidezko adierazpena garatuko da, metodologia parte-hartzaile batetik eta lankidetzatik abiatuz.

Azken xedea beraz, antzezlan izango da. Lehenik eta behin, ikasleek pertsonaia mitologiko ohikoenak ezagutuko dituzte. Horretarako, horien inguruko informazioa bilatu beharko dute eta izaki bakoitzaren ezaugarriak aztertu. Hiztegiaren lanketarekin batera, deskribapen errazak eta pertsonaien aurkezpenak egingo ditugu. Ondoren, horiei loturiko kondairak eta mitoak entzun edo irakurriko dituzte.

Kondaira eta ipuinetatik abiatuz, izaki mitologiko bat (edo batzuk) aukeratuko dute eta antzezlan taldeka prestatu. Aldez aurretik, pertsonaiak eta zereginak zehaztea ezinbestekoa da. Jarraian, ipuinetik abiatuz, edota moldaketak eginez testua (gidoia) sortuko dute, akotazioak barne.

Behin testua idatzita dugularik, entseguak eginez interpretazioan eta ahozkotasunean hobetzeko proposamenak egingo ditugu, errubriken bidez, auto-ebaluazioa eta ko-ebaluazioa sustatuz.

CURRICULUMENKO ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

HKK1, HKK2, HKK4, ELK1, ELK2, ELK3, KD1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK3, KKAK1, KKAK2, KKAK4.

BERARIAZKO GAITASUNAK:

1, 2, 3, 4, 5, 6.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

1.1, 1.2, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 5.2, 5.3, 6.1, 6.2, 6.3

OINARRIZKO JAKINTZAK:

A. KOMUNIKAZIOA

B. ELEANIZTASUNA

C. KULTURARTEKOTASUNA

GAIA: Euskara eta Literatura (D eredu).

ZIKLOA: Lehen zikloa

IPUINAK ZAHARBERRITZEN	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
SKOLAE berdin bidean programaren markoan, lehenengo ikasketa kritika berdintasunik ezaren aurka eta aldaketarako gaitasuna dugu. Lortu nahi dena generoaren arloan dagoen berdintasunik eza identifikatzea, aztertzea eta eraldatzeko ardura hartzea da. Horregatik, arazo-egoera honek ikasleek hainbat ipuin-klasikoetan genero-desberdintasunak identifikatuz eta horien inguruan hausnartuz, aurre-iritzi eta estereotipoetatik aldenduz, bertsio berriak sortzea du helburu. Abiapuntutzat ipuin klasiko bat hartuko dugu. Ikasleek ipuinaren mezu esplizituak antzemateko eta edukia baloratzen hasteko, hainbat euskarritan aurkeztuko diegu ipuina (paperean eta ikus-entzunezkoan). Bestalde, idatzizko testuen zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua ulertzeko, ulermen estrategiak landuko ditugu. Horrez gain, ipuinean, pertsonaien rola, zeharkako mezuak, elkarriketak... aztertuko ditugu eta ikasleengan hauen gaineko hausnarketa eragingo dugu. Ikasleek taldeka ipuinaren eraldaketa egingo dute, genero-berdintasuna eta diskriminaziorik gabeko hizkuntza erabiliz. Testua hainbat euskarritan sor dezakete, betiere, aurretik zer egin behar duten zehaztuz, eta ereduak emanaz. Testuak idazteko prozesuan, plangintza, idazketa, berrikuspene eta edizioa egiteko estrategien laguntza eskainiko diegu. Testua eraldatu ondoren, egindakoa gelatik kanpo ateratzeko, antzezpen bat, lapbook bat, komiki bat, rap bat... egingo dute.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK2, HKK4, STEM3, KD2, KPSII1, KPSII3, KPSII4, HK3, EK3, KAK2, KAK4
	BERARIAZKO GAITASUNAK: 2, 4, 5, 8, 9, 10.
	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 2.1, 4.1, 4.2, 5.1, 8.1, 8.2, 9.1, 10.1
	OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B. C. D.



GAIA: Euskara eta Literatura (D eredu).

ZIKLOA: Bigarren zikloa

EGUN BATEZ SUKALDARI	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
<u>SKOLAE</u> <u>berdin bidean</u> programaren markoan, bigarren ikasketa autonomia, independentzia pertsonala eta enpleguaren zentraltasuna da. Lortu nahi dena da, bizitza-proiektu igualitarioetan zainketaren eta enpleguaren lanak autonomia eta independentziarako oinarri gisa hartzea. Bide honetatik, arazo egoera honek oraindik ere horren errotuta dagoen etxeko lanen banaketaren desoreka azaleratzea, horren inguruko hausnarketa egitea, eta rol estereotipatu horien ezabaketan aurrerapausuak ematea du helburu. Arazo-egoera honen helburua egun batez sukaldari bihurtzea da, horrek dakarren ardura guztiak bere gain hartuz. Bukaerako produktua hainbat euskarritan errezeta bilduma bat sortzea izango da (idatziz, bideoz, audioz...), eta prozesuan izandako bizipenak partekatzea. Hasteko, ikasleen familien artean arazo-egoera honekin lotutako etxeko lanen banaketaren inguruko azterketa egingo dute. Hala nola, menua pentsatu, erosketak egin, janaria prestatu, mahaia jarri eta kendu, zerbitzatu, harrikoa egin... Horretarako, datuak bildu, aztertu, ondorioak atera eta berdintasunerako proposamenak egingo dituzte. Ondoren, ikasleekin sukaldaritzarekin lotutako hiztegia zein egiturak, eta errezetaren testu tipologiaren ezaugarriak landuko ditugu, eredu desberdinak erabiliz. Azkenik, aukeratutako errezeta ahalik eta era autonomoenean gauzatuko dute, behar duten laguntza etxeko rolen aldaketaren bidez jasoz.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK2, HKK5, STEM1, STEM5, KD1, KD2, KPSII1, KPSII4, HK3, EK2 . BERARIAZKO GAITASUNAK: 2, 3, 4, 5, 9, 10 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 2.1, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 9.1, 9.2, 10.1 OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B. D.

GAIA: [Euskara eta Literatura \(D eredu\)](#).

ZIKLOA: [Hirugarren zikloa](#)

TRATU ONAK HARTU ETA EMAN

SKOLAE berdin bidean programaren markoan, laugarren ikasketa **sexualitatea, bizikidetzeta eta indarkeriaren prebentzioa** da. Ikasketa honekin errespetua eta berdintasuneko hazkunde pertsonala errazten dituzten harreman afektibo, sexual eta bizikidetzakoak adierazteko eta ezartzeko gaitasun pertsonala ezagutzea eta onartzea lortu nahi da.

Gure harremanak tratu onen eta pertsona arteko kalitatezko harremanen esparrukoak dira. Arazo-egoera honen helburua, norbere burua ezagutu eta berdinen arteko errespetuzko harremanak bultzatzea da.

Abiapuntua, norbere burua ezagutzea eta onartzea izango da (neure burua aintzat hartzen dut, onartzen dut eta balioesten dut). Horretarako, norberak bere ezaugarriak (indarguneak, hobetzekoak) identifikatuko ditu, horien inguruko hausnarketa eginez eta modu desberdinean islatuz (idatziz, zuhaitz baten irudiaren bidez....).

Ondoren, norberak zer eman eta zer jasotzeko prest dagoen adierazteko, ikasle bakoitzak pinaburu bat apainduko du eta bertan eman eta jasotzeko prest dagoena idatziko du. Asteazkera zehar kideek idatzitakoa irakurriko dute eta prestutasunaren arabera praktikara eramango dute.

Bukatzeko, "TRATU ONAK" horma-irudia egingo dugu. Berdinen arteko harreman osasuntsuak eta kalitatezkoak eman daitezen dekalogo osatuko dugu.

CURRICULUMENKO ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

[HKK1](#), [HKK5](#), [ELK1](#), [ELK3](#), [STEM3](#), [KPSII1](#), [KPSII2](#), [KPSII3](#), [KPSII4](#), [HK2](#), [HK3](#), [KKAK3](#), [KKAK4](#).

BERARIAZKO GAITASUNAK:

[1](#), [3](#), [4](#), [5](#), [10](#).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

[1.2.](#), [3.1.](#), [3.2.](#), [4.1.](#), [5.1.](#), [10.1.](#), [10.2.](#)

OINARRIZKO JAKINTZAK:

[A.](#)

[B.](#)

[D.](#)

GAIA: [Gaztelania eta Literatura](#).

ZIKLOA: [Lehen zikloa](#)

HITZ ESANGURATSUAK (E)	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Album ilustratua edo testu literario bat abiapuntutzat hartuko dugu, egunero erabiltzen ditugun hitzen balioa azpimarratzeko eta egunero erabiltzen dugun hizkuntza zaintzeko. Ikasgelan irakurriko dugu, eta ikasleei eskatuko diegu «hitz bereziak» bilatzeko, «antzezlan partekatua» prestatze aldera. Astero, familia bakoitzak diapositiba bat diseinatuko du, eta bertan hitz berezi bat jasoko du. Horrez gain, hitzarekin batera, hitz horrek beraientzat duen esanahia azalduko dute, olerki, ipuin labur edo oso labur baten bidez, edo marrazki, argazki zein abesti baten bidez. Aste bakoitzean protagonista den umeak eskolan azalduko du hitz berezi horrekin egin duen lana. Gero, ikasgelako horma batean hitzak bilduko ditugu, eta ume bakoitzak bere hitz berezia idatziko du bertan. Geroago, taldeak akrostikoa egingen du, eta hitz horiek beste hizkuntza batzuetan idatziko ditu, ikasgelan giro hurbilagoa edo epelagoa sortzeko. Liburua etxe guztietan egon eta gero, ikasgelako liburutegian geratuko da, eta, behin ikasturtea amaituta, ikastetxeko liburutegira eramaneen dugu.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK2, HKK4, ELK2, ELK3, KD2, KD3, KPSII3
	BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 2, 3, 4, 5, 7, 9
	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 2.1, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.1, 7.2, 9.1
	OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B. C. D.

GAIA: [Gaztelania eta Literatura](#).

ZIKLOA: [Bigarren zikloa](#)

AUZO ATSEGINA	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Garapen jasangarrirako helburu baten arabera, guztion eskubidea da hirietako espazioak inklusiboak izatea eta espazio horietara iristeko aukera izatea; beraz, helburu hori abiapuntutzat hartuko dugu, eta ikasleei proposatuko diegu beren ingurune hurbileko premiak aztertzea, auzokideak espazioetara errazago iris daitezen. Ondoren, aurkitutako premiak herriko udalari bidaliko dizkiote. Lehenik eta behin, informazioa bilatuko dute desgaitasuna duten pertsonen buruzko elkarteetan, pertsona horien bizipenei buruzko informazioa eskatze aldera. Informazio hori bildu eta aztertu ondoren, ideia nagusiak aterako dituzte, eta udalari egindako eskaera arrazoitzeko erabiliko dituzte. Horretarako, bi zerrenda egin beharko dituzte: batean premiak jasoko dituzte; eta bestean, balizko irtenbideak. Desgaitasuna duten ikasleekin familiekin batera, lehenetsun arabera ordenatuko dituzte. Ondoren, herriko iragarritasunaren gaineko planeari arduratzen den udal langilearekin biltzeko hitzordua eskatuko dute posta elektronikoz. Bilera horretan ahoz eta Power Point baten bidez azalduko dute haien proposamena, baita amaierako ondorioak ere. Aurkezpen horren amaieran eskerrak emanen dituzte, zeinu hizkuntzaz.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, ELK2, KD1, KD2, KPSII3, KPSII4, HK2, HK3. BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 3, 4, 5, 6, 10 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 1.2, 3.1, 3.2, 4.1, 5.1, 6.1, 10.1 OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B.

GAIA: [Gaztelania eta Literatura](#).

ZIKLOA: [Hirugarren zikloa](#)

BIZITZAKO ISTORIOAK	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Ikasleei proposatuko diegu Ikasteko eta Zerbitzu egiteko Proiektu bat prestatzea. Proiektu horren bidez, ikasleek auzoko adineko pertsonen eskainiko diete bizitzako istorioak partekatzeko eta ikusarazteko espazio bat. Ikasleek ahozko kontakizunak hartuko dituzte abiapuntutzat, eta proposamenak egingen dituzte hizkuntza-komunikazioari buruzko gaitasuna garatzeko. Lehenik eta behin, galderak idatziko dituzte, eta hurbilen dagoen adineko pertsonen zentroari bidaliko dizkiote. Erantzunak grabaketetan jasoko dituzte, eta ikasgelara eramanen dituzte. Behin informazio esanguratsuena aukeratuta, eta testu mota horren ezaugarriak kontuan hartuta, ikasleek biografia txiki bat prestatuko dute parte-hartzaile bakoitzari buruz. Ondoren, biografiak irakurtzeko saio bat antolatuko dute adineko pertsonen zentroan. Testuetan argazkiak eta beste datu batzuk ere txertatuko dituzte: protagonisten argazkiak, garaiko pertsonenak, datu bitxiak, datu eta leku interesgarriak... Ekoizpen horiek auzoko liburutegian erakutsiko dituzte auzokideek ere ikusi ahal ditzaten. Azkenik, liburuxka bat prestatuko dute erakusketaren berri emateko, eta auzokideen elkarteari emanen dizkiogu, bana ditzan.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK3, KD2, KPSII3, KPSII5, HK1, EK1, EK3 BERARIAZKO GAITASUNAK: 3, 5, 6, 9, 10 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 3.2, 5.1, 6.1, 9.1, 9.2, 10.1 OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B. D.

GAIA: Balio Zibikoen eta Etikoen Hezkuntza.

ZIKLOA: Hirugarren zikloa

OPOR PARTEKATUAK	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Proposamenaren bidez sustatu nahi dugu ikasleak ziberjazarpenari buruzko hausnarketa egitea eta jokabide mota hori identifikatzeko gai izatea. Fikziozko egoera hau azalduko diegu ikasleei: ikasgelako benetako irakasleak irakasle faltsu baten identitatea asmatuko du. Irakasle faltsu hori beste herri batekoa izan arren, oporrak ikasleen herrian pasatu nahi ditu, eta jakin nahi du udan herri horretan zer egin daitekeen, beraz, gustatuko litzaioke ikasleen argazkiak jasotzea, herrian emandako udako oporrei buruzkoak. Horrez gain, ikasle bakoitzak biografia txiki bat prestatuko du, irakasle horrek proposatu dituen ikasleen bizitzari buruzko galdera zehatzak erantzuteko. Eskatutako informazioa bidali ondoren, ikasleek ezusteko mezu bat jasoko dute: fotomuntaketa larri bat argitaratzeko mehatxua egingen diete, baita muntaketan ikasleen datu pertsonalak jasotzeko mehatxua ere, eskatutako diru kopurua ematen ez badute. Irakasleak jakinaraziko die gezurra dela, baina, bizipen horretatik abiatuta, hausnarketa gidatua egingen dute, eta informazio-triptiko batean ondorioak jasoko dituzte. Azkenik, film labur bat egingen dute, engainuari buruzko bizipena irudikatzeko. Filma eta triptikoa ikastetxeko webgunearen bitartez partekatuko dituzte.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: KD4,KPSII4, HKK1, HK3 , EK3 BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 2 , 4 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 1.3, 2.1, 2.2, 2.5 , 4.1 OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B.



GAIA: Atzerriko Hizkuntza.

ZIKLOA: Lehen zikloa

ALL DIFFERENT - ALL EQUAL / TOUS DIFFÉRENTS - TOUS ÉGAUX / ALLE ANDERS - ALLE GLEICH	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Honako hauek dira berdintasunaren zutabe nagusietako bat: ezberdinak izateko eskubidea eta, hartara, ezberdintasunak errespetatzeko betebeharra. Gorputz ezberdinak ditugu, eta gure ekintzak eta desioak ezberdinak dira. Alabaina, guztiok merezi ditugu duintasun, eskubide eta askatasun berak. Lehenik eta behin, ikasleak talde kooperatiboetan antolatuko dira, eta izaki mitologikoen irudiak landuko dituzte (esfingeak, uhandrea, lammasu...). Gorputz atalen zerrenda idatziko dute («it has», «il a», «es hat»), baita ekiteko aukerak ere («it can», «il peut», «es kann»). Irudiak proiektatuko ditugu, eta, deskribapenaren bitartez, ikasleek asmatu beharko dute talde bakoitzak zer pertsonaia azaldu duen. Ondoren, erronkari helduko diogu. Talde bakoitzari paper jarraitua emanen diogu, eta taldeko pertsona baten silueta marraztuko dute. Geroago, talde bakoitzari deskribapen bat emanen diogu (adibidez, «I have no legs, but I can run and play»; «Je n'ai pas de jambes, mais je peux courir et jouer»; «Ich habe keine Beine, aber ich kann rennen und spielen»). Esaldia siluetaren gainean idatziko dute, eta silueta enuntziatuaren arabera moldatu beharko dute. Deskribapenarekin bat ez datozen gorputz atalak ezabatzeaz gain, pertsona horri lagundu beharko diote mezua betetzen. Bideo inspiratzaile bat ere proiektatuko dugu: Nick Vujcic, Victoria Bueno, David Aguilar... Azkenean, ikaskideei azalduko diete proposamena. Ikasgelaren blogaren bidez partekatzen ahalko dituzte bideoak eta ekoizpenak.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK2, HKK3, ELK1, ELK2, STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII5, KKAK2, KKAK3, KKAK4, EK1. BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 2, 5. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 1.2, 2.1, 2.2, 2.3, 5.2. OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B.



GAIA: Atzerriko Hizkuntza.

ZIKLOA: Bigarren zikloa

Bon Voyage! / Have a nice trip! / Gute Reise!

Oporrak heltzear daude, beraz, ikasten ari garen hizkuntzari lotutako zer herrialde bisitatu pentsatuko dugu. Horrekin batera, erantzukizunez mugitzeari eta kulturartekotasunari buruzko balioak ere irakatsiko dizkiegu ikasleei.

Herrialde horretara joan aurretik, hauxe galdetuko diogu geure buruari: Zer sartuko dugu maletan? Nola bidaiatuko dugu?

Galdera horiek erantzuteko, herrialdea non dagoen, bertako ezaugarri geografikoak eta klima aztertuko ditugu, zer arropa eraman hobeki jakiteko. Horrez gain, garraio egokiena ere aukeratuko dugu, irizpide ekonomikoak eta jasagarritasuna kontuan hartuta.

Erronka horretan, talde kooperatibo bakoitzak herrialde bat aukeratuko du, ikasten ari diren atzerriko hizkuntza zein den. Gero, honako urrats hauek egin beharko dituzte: herrialde horri buruzko informazioa bilatu, munduko mapan kokatu, zein sasoitan bisitatzeko aukeratu, zer jantzi mota eramatea erabaki eta garraiobideen ezaugarrien arabera (eskuragarritasuna, prezioa, kutsadura...) nola heldu zehaztu.

Bidaia-plana bideo edo testu baten bidez aurkeztuko dute.

Amaierako lana munduko mapa interaktiboa izanen da (adibidez, Padlet tresnak erabiliz), eta atzerriko hizkuntzari lotutako herrialdeak bertan agertuko dira, taldeak egin dituen bideoetara edo testuetara eramateko estekekin batera.

CURRICULUMENKO ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

HKK1, HKK3, ELK1, ELK2, ELK3, STEM1, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK3, HK4, EK1, EK2, KKAK1.

BERARIAZKO GAITASUNAK:

1, 2, 3, 4, 5, 6.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

1.2, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.2, 6.1, 6.2, 6.3.

ONARRIZKO JAKINTZAK:

- A.
- B.
- C.



GAIA: Atzerriko Hizkuntza.

ZIKLOA: Hirugarren zikloa

MEINE STADT / MA VILLE / MY TOWN

Gure ikasleak harremanetan jarri dira atzerriko hezkuntzari lotutako herrialde bateko eskola batekin, eta haien adineko ikasleen talde batekin hitz eginen dute, eTwinning plataforma bidez.

Ikasle-talde biek elkar ezagutu nahiko dute. Horretarako, talde bakoitzaren bizitokia aurkezten hasiko dira.

Horretarako, liburuxka interaktiboa eginen dute, herria edo hiria aurkezteko. Guztion artean bateratze-lana eginen dute, bizitokiko elementu nagusiak zehazteko: geografia, klima, hizkuntzak, gastronomia, ondarea...

Adituen taldeen egiturari jarraituta, lana banatuko dugu (ikaskuntza kooperatiboa). Baliabide analogikoen eta digitalen bidez, informazioa bilatuko dute. Behin informazioa bilduta, oinarrizko taldean bilduko dira berriro, eta testuak edo bideo txikiak eginen dituzte, bizitokiko puntu esanguratsuenak, plato tipikoak eta abar erakusteko.

Amaierako lan gisa liburuxka kolektiboa eginen dute tresna adimendunen bidez, hala nola Canva bidez aurrez diseinatutako txantiloien bidez. Diseinu horretan talde aditu bakoitzeko atal guztiak jasoko dira. Askotariko formatuak erabil daitezke: testu idatzia, audioak, irudiak, bideoa, QR kodeak...

CURRICULUMENKO ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

HKK1, HKK3, HKK5, ELK1, ELK2, ELK3, STEM3, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, KKAK1, KKAK2.

BERARIAZKO GAITASUNAK:

1, 2, 3, 4, 5, 6.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

1.2, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.2, 6.1, 6.2, 6.3.

OINARRIZKO JAKINTZAK:

A.

B.

C.



GAIA: Atzerriko Hizkuntza.

ZIKLOA: ziklo guztiak

VIVONS ENSEMBLE, RAPPONS ENSEMBLE / LIVE TOGETHER, RAP TOGETHER / ZUSAMMEN LEBEN, ZUSAMMEN RAPPEN

Eskolak elkarte txikiak dira, eta ikasleek, irakasleek, familieek eta eskolako gainerako langileek gure denboraren zati bat ematen dute elkarte horretan. Elkarrekin bizi behar dugunez, bizikidetza-arauak ezartzen ditugu, hezkuntza-komunitatearen onerako. Ikasteko egoera horretan, ikasleek arauen aldeko lan aktiboa eginen dute zentroko bizikidetza eta ongizatea hobetzeko.

1, 2, 4 egitura kooperatiboari jarraituta, ikasleek azalduko dute zeintzuk diren eskolan txarto sentiarazten dituzten egoerak, edo zer egoera aldatu nahiko luketen, hobeki sentitzeko. Bateratze-lana egin ondoren, bizikidetza-arauak ezarriko ditugu, horrelako egoerarik berriro gerta ez dadin. Ikasleek, talde kooperatiboen arabera antolatuta, kartelak eginen dituzte, zentroan hitz egiten diren hizkuntzetan. Teknologia berriak erabiliko dituzte.

Amaieran rap bat sortuko dute, ikastetxeko edo ikasgelako arauak abesten, xede-hizkuntzan. Arte Hezkuntzaren arloarekin (Musika arloarekin) batera, rap bat sortuko dute, eta ikasleek erabaki dituzten arauak abestiaren letra osatuko dute. Ekoizpen hori maila guztietara zabalduko da. Mailen arteko proposamena ere izan liteke, eta ikastetxe osoko ikasleek parte hartzen ahalko lukete ikastetxearen arauak lantzeko.

CURRICULUMENKO ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

HKK1, HKK2, HKK5, ELK1, ELK2, ELK3, STEM3, KD2, KD3, KPSII1, KPSII2, KPSII3, HK2, HK3, EK1, EK3, KKAK3, KKAK4.

BERARIAZKO GAITASUNAK:

1, 2, 3, 4, 5.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

1.1, 2.1, 2.2, 2.3, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 5.2.

OINARRIZKO JAKINTZAK:

A.

B.

ZIKLOA: Lehen zikloa

ZIKLOA: Lehen zikloa

DENDETAN JOLASTUKO GARA?

Ikasleak jolasten diren bitartean, modu espontaneoan, euren ingurunean egunero ikusten dituzten rolak edo egoerak birsortuko dituzte. Horrela, beren gaitasunak garatuko dituzte, eta errealitateko irudipen mentalak eginen dituzte.

Lehen zikloan maiz sortzen den jolas sinboliko bat «denda-jolasa» da. Mutilek eta neskek denbora handia ematen dute «produktuak» prestatzen eta salmentak egiten. Jolas horretan eduki matematikoak lantzen dituzte: batez ere, kopuruak eta magnitudeak, komunikazio-egoera batean. Irakasleek jolas hori bultza dezakete, guneak, denborak eta materialak eskainita: esaterako, txanponak, billeteak, kalkulagailuak, balantzak...

Behaketaren bidez, banakako garapena ezagutzen ahalko dugu, eta proposamenak ere egiten ahalko ditugu, jolasak aurrera jarrai dezan. Lineako supermerkatuen webguneak bisitatzeko edo zentrotik gertu dauden supermerkatu fisikoetara joateko aukera izanen dugu, ikasleak talde txikietan antolatuta. Bisita horietan benetako erosketak egiten ahalko ditugu, edo, gure ustez, garrantzitsuak diren alderdiak jorratzen ahalko ditugu, hala nola prezioak idazteko formatua edo tiketetan ematen duten informazioa.

Era berean, gelan bertan dendak antolatzen ahalko ditugu, produktuak benetako «diru»aren truke aldatu ahal izateko. Baliteke proiekturen bat egiteko materiala erosi beharraren ondorioz, egoera interesgarri bat sortzea. Ikasleek, taldeka antolatuta, beren denda prestatuko dute, eta, aldi berean, diru kopuru mugatua izanen dute, gainerako dendetan beste material batzuk erosi ahal izateko.

CURRICULUMENKO ELEMENTUAK

FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK:

HKK1, HKK2, STEM1, STEM3, KPSII1, KPSII3, EK1, EK2, EK3, KKAK4.

BERARIAZKO GAITASUNAK:

1, 2, 3, 5, 6, 7, 8.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

1.1, 1.2, 2.1, 2.2, 2.3, 3.2, 5.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8.2.

OINARRIZKO JAKINTZAK:

A.
B.
F.



GAIA: [Matematika](#).

ZIKLOA: [Bigarren zikloa](#)

Denboraren igarotzea	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Adin goiztiarretatik hasita, eduki matematikoak biltzen dituzten testuak eskolan, familian eta gizartean erabiltzen dira, hainbat xedetarako. Haietako bat egutegia da. Egutegietan egun bereziak jaso ohi ditugu: adibidez, herriko jaiak edo urtebetetzeak. Halaber, ohikoa da udalek eta saltokiek egutegiak banatzea urte bakoitzaren hasieran. Hona hemen gure proposamena: ikasleek, modu kooperatiboan, egutegi bat egitea, helburu solidarioak betetzeko. Hainbat formatu eta euskarri kontsultatu eta gero —software askeko aplikazioak eta programak erabil ditzakete, egutegia maketatze eta diseinatzeko—, pentsatu beharko dute zer informazio bildu egutegian: jaiegunak, ilargiari buruzko informazioa, eskolako gertaerak, urtaroak eta abar. Horrez gain, erabilitako sinboloak azaltzeko legenda ere txerta daiteke egutegian. Gero, kontuan hartu beharko dute urte bisustua den ala ez. Horrekin batera, beste erabaki batzuk ere hartu beharko dituzte: nork inprimatuko duen, nola, non, zenbat ale, kostua eta abar. Aurrekontua prestatu beharrik ikasteko beste egoera bat eskainiko digu. Aldi berean, ikerketa bat egin dezakegu alderdi osagarri hauek argitzeko: noiz hasi ziren egutegiak erabiltzen, nolakoak ziren, zertarako erabiltzen zituzten, zer egutegi mota dauden edo egon diren, etab. Laburbilduz, gizakion denbora neurtu beharra aztertzen ahalko dugu, eta denboraren igarotzeari buruzko hausnarketa ere egiten ahalko dugu, egutegiaren egitura baliatuta (egunak, asteak eta abar). Egutegiaren irudiak aukeratzeko, argazki-rally bat antola dezakegu	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK2, HKK3, STEM1, STEM2, STEM3, KD1, KD2, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, EK3, KKAK1, KKAK4 BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 4, 5, 7, 8 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 4.1, 5.1, 5.2, 7.7, 7.2, 8.1, 8.2 OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B. D. F.



auzoan edo herrian, ikasleek irudikatu nahi duten hilabetea osatzeko. Argazki bakoitzarekin batera, izenburua edo azalpen-testu txiki bat txerta dezakete, hitz zehatzak erabilita. (Agian, beste arlo batzuekin ere lotu daiteke). Rally hori erabiltzen ahalko dugu inguruneke elementu geometrikoak edo hiri-altzariak behatzeko eta haien argazkiak egiteko. Horrek ikasteko beste egoera bat sortuko du, baina aurrekoari lotuta egonen da.

Ikasteko egoera horren beste aldaera bat eskolako agenda egitea izan daiteke.



GAIA: Matematika.

ZIKLOA: Hirugarren zikloa

Festa bat antolatuko dugu?	CURRICULUM EKO ELEMENTUAK
Mutilek eta neskek kide izateko sentimendua daukate, komunitatean beren ekarpena egin nahi dute, eta eskola-zentroko bizitzan parte hartu nahi dute. Hori abiapuntutzat hartuta, ikasleei proposatuko diegu ikasturteko gertaera esanguratsuenetako bat antolatzea: ikasturtearen bukaerako festa.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK3, HKK5, STEM1, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII3, ELKAA5, HK2, EK1, EK2, EK3
Lehenik eta behin, honako datu hauek zehaztuko ditugu: eguna, guneak, festaren iraupena eta balizko jarduerak. Horrez gain, inkesta edo formulario bat prestatuko dugu ikaskideen interesak ezagutzeko (musika, kirola, gastronomia, kultura eta abar).	BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8
Behin informazioa bilduta, ikasleek inkestan izan duten parte-hartzearen ehunekoak aztertu eta interpretatuko ditugu (guztizkoa, zikloaren araberakoak, ikasturtea, generoa). Horrez gain, komunikazio-plana eginen dute, eta bertan taulak edo grafikoak jasoko dituzte boto gehien lortu dituzten proposamenei buruz.	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 1.2, 2.2, 2.3, 3.2, 4.1, 5.2, 6.1, 6.2, 7.1, 7.2, 8.1, 8.2
Hori egin eta gero, hainbat informazio-iturri erabiliko dituzte, aisialdiari eta jarduerari buruzko informazioa jasotzeko. Gero, jarduera-zerrenda osatuko dute. Zerrenda horretan jarduerak, kostua eta eskakizunak jasoko dituzte, aurrekontua egin eta erabakiak hartu ahal izateko. Jarduera-zerrenda egin aurretik, zentroko zuzendariekin adostu beharko dute erabilgarri dagoen aurrekontua. Azkenik, kronograma bat eginen dute informatikako programa baten	OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B. D. E. F.



bidez. Kronograman jarduera bakoitza zer ordutan izanen den jasoko dute, eta komunitatearentzat esanguratsua den beste datu batzuk partekatzen ahalko dituzte. Zuzendariekin lan-bilera egiteko hitzordua eskatuko dute, eta bilera horretan proposamena azalduko dute ahoz eta aurkezpen digital baten laguntzaz. Besteak beste, honako alderdi hauek aztertu beharko dituzte: bideragarria den, finantzatzeko estrategien diseinua, babesleak eta abar.



GAIA: [Ingurune Naturalaren, Sozialaren eta Kulturalaren Ezagutza.](#)

ZIKLOA: [Lehen zikloa](#)

ZER GERTATZEN ZAIO IBAIARI?	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Ibaiek protagonismo handia izan dute Nafarroako biztanleen kokaguneen diseinuan. Ia herri eta hiri guztietatik gertu ibai bat dago, eta ibai horretatik baliabide naturalak atera dituzte, baina, horrez gaien, biztanleek ibaiko ur horietan ere ondo pasatu dute. Ikasleekin batera, herriko ibaiko ekosistema ezagutzeko aukera izanen dugu, eta, gero, ikasturtean, jarraipena egiten ahalko dugu. Urtaroek erritmoa markatuko dute, beraz, ikusten ahalko dugu flora, fauna edo ibaiaren emaria nola aldatzen diren. Ibaiaren ertzetan atsedean hartzeko aukera izanen dugu, eta ibaiaren erabilera sozialari ere erreparatzen ahalko diogu. Zehazki, bi portaera bereiziko ditugu: naturarekin eta pertsonekin errespetuz jokatzekoa eta errespeturik gabe jokatzekoa. Beste gizarte-eragile batzuek sustatu dituzten ekintzak geuk ere sustatzen ahalko ditugu, edo haietan parte hartzen ahalko dugu: esaterako, natura zaintzeko ekintzak (adibidez, uhaldien ondoren, plastikoa kentzeko proposamenak). Beste lan-ildo interesgarri bat familiakoei ibaiaren erabilerei buruzko inkestak egitea da. Hainbat zubi behatzea abiapuntua izan daiteke zubi baten maketa egiteko. Horretan, irizpide estetiko eta funtzionalak hartuko ditugu kontuan, besteak beste, pisu zehatzari eutsi edo emariaren zabalera-neurri zehatz bat bete beharra. Bestalde, zubiak aztertu bitartean, historia-ondarea ere aztertzen ahalko dugu. Amaierako produktu gisa, ikasleek irudien erakusketa antolatuko dute:	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM5, KPSII3, HK4, EK3, KKAK1 BERARIAZKO GAITASUNAK: 2, 3, 5, 6, 7 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 2.1, 2.2, 3.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.1, 7.1, 7.2 OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B. C.



ikasturteko argazkiak izanen dira, argazki-oinak ere txertatuta, ikasteko egoera horretan esanguratsuak izan diren gainerako elementuekin batera. Horrez gain, erakusketa ikusteko bisita gidatuak ere antolatzen ahalko dituzte. Ikasleak izanen dira gidariak, eta irudien esanahia azaltzen ahalko diete familiakoei edo beste ikasle batzuei.



GAIA: Ingurune Naturalaren, Sozialaren eta Kulturalaren Ezagutza.

ZIKLOA: Bigarren zikloa

Hauxe da nire izena	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Haurren Eskubideei buruzko 1989ko Konbentzioan ezartzen da ume guztiek izena edukitzeko eskubidea dutela, jaiotzen direnetik bertatik. Norbera izenaren bidez bereizten da gizartean, eta nortasunaren zatia da pertsona bakoitzaren izena. Horrez gain, batzuetan esaten da izena duena baino gehiago ez dela existitzen; hortaz, garrantzitsua da izena edukitzea, eta ikastetxeari ere izena eman zaio. Behin izenen garrantziaz jabetuta eta eskolako izena abiapuntutzat hartuta, ikerketa historiko bat egiten ahalko dugu eskolako izenari buruz: nork proposatu zuen, noiz eta abar. Nondik etorri garen jakinez gero, hobeki ulertuko dugu gure oraina. Ikasleek, binaka edo talde txikietan, informazioa bila dezakete sarean, liburutegian edo zentroarekin harremana izan duten familiei edo pertsoneri galdetuta. Ikerketak hainbat bidetara eramanez gaitu, izenaren jatorria zein den. Pertsona bati erreferentzia egiten badiu, garai historikoa, garrantzia eta antzeko datuak ikertuko ditugu. Leku bat aipatzen baldin bada, mapak erabil ditzakegu, eta tokiko toponimoei buruzko informazioa bila dezakegu. Amaierako produktuak informazio-panelak izanen dira, eta hezkuntza-eskolaren sarreran jartzen ahalko ditugu. Horrez gain, izena aldatzeko proposamen bat ere egiten ahalko dugu, edo hurbil dauden beste zentro batzuen izenak jaso eta konparatzen ahalko ditugu, genero-ikuspegiaz.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK2, HKK3, KD1, KD2, KD4, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK3, KKAK1, KKAK4 BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 2, 5, 8, 9 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 2.1, 2.2, 2.4, 2.5, 5.2, 5.3, 8.2, 9.2 OINARRIZKO JAKINTZAK: A. B. C.



GAIA: Ingurune Naturalaren, Sozialaren eta Kulturalaren Ezagutza.

ZIKLOA: Hirugarren zikloa

LAGUNDUKO DIGUZU JAKI GUTXIAGO ALFERRIK GALTZEN?	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Munduan sortzen diren jakien heren bat alferrik galtzen da, hau da, bota egiten dugu. Jakiak alferrik galtzen ditugunean, jakiak ekoizteko, eraldatzeko eta banatzeko baliabideak ere (ura, lurra, ongariak, energia edota lana) zaramara botatzen ditugu. Europar Batasunak uste du etxeetatik ateratzen dela zaraman amaitzen den jakien % 42. Lehenik eta behin, ikasleei proposatuko diegu jakiak alferrik galtzeari buruzko arazoa ikertzea, eta abiapuntutzat hartuko dugu Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren ekimen hau: «Jaki gehiago, hondakin gutxiago». Ekimen horren bidez lortu nahi da elikagai gutxiago alferrik galtzea eta horrek ingurumenean duen eragina murriztea. Informazioa bildu eta gero, eztabaida bat egin dezakete, jakiak alferrik galtzea zer den aztertzeke. Horrez gain, beste herrialde batzuetako neska-mutilen elikadura ezagutzen ahalko dugu: esaterako, agian guk kontsumitzen ez dugu jakiren bat haiek kontsumituko dute, hau da, zer jaten duten ezagutuko dugu. Gainera, aurkezpen digital bat prestatuko dute, eskolan eta etxeetan gai horiei buruzko sentsibilizazioa sortzeko. Hori egin eta gero, kontuan hartu beharko dugu ikastetxeetan (batez ere, sukaldean, jantokian eta atsedendaldian) jakiak botatzen direla zaramara; beraz, ikasleei proposatuko diegu eskolako zentroetan jaki gutxiago alferrik galtzeko On Egin! gida praktikoa erreferentziazat hartzea eta	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK2, HK3, HK4, EK1, EK3 BERARIAZKO GAITASUNAK: 1,2, 3, 5, 6 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.1, 2.1, 2.2, 2.3, 2.4, 2.5, 3.1, 3.2, 3.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.1, 6.2



eskolako eta familiako kontsumo-ohiturei buruzko hausnarketa egitea, ohitura horien ondorioak ere kontuan hartua. Gero, jaki gutxiago alferrik galtzearen alde zer egin dezaketen pentsa dezakete. Amaieran, talde handian parteka ditzakete hausnarketaren emaitzak.

Bestalde, atsedenaldira landa-lana egitea proposatzen ahalko diegu. Adibidez, materia organikoa biltzeko ontzi bat jar daiteke zentroan. Atsedenaldira amaieran, ontziak bildu eta hondakinak aztertzen ahalko dituzte. Hondakinak (fruta, esnekiak, ogitartekoak, zukuak...) sailkatzea proposatzen dugu, betiere kontuan hartuta ez dagoela zertan bota jakien hondakinik, haietako asko beste era batean erabil daitezkeelako. Horrez gain, kalkula dezakete asteko atsedenaldira zenbat hondakin sortzen diren, eta zenbat murriztu, berriz erabili edo berriz banatzen ahalko ziren.

Azkeneko proposamena zentroan kanpaina bat egitea da: aurkezpenak eta muralak egitea, sinadurak biltzea eta antzeko jarduerak antolatzea. Horren xedea ekonomia zirkularraren eta jasangarriaren aldeko apustua egitea da, baita horri lotutako sentsibilizazioa sortzea ere, jaki-hondakin gutxiago sortzeko, hondakinei beste erabilera bat emateko, jakiak berriz banatzeko (elikagaien bankua) eta birziklatzeko konpromisoa hartzeko.

OINARRIZKO JAKINTZAK:

- A.
- B.
- C.